

EDIKTUA

Ondasun higiezin gaineko zergari buruz eta ondasun higiezin hiritarren balio katastralen berrikuspenari buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2019ko irailaren 3an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuen.

«**Lehena.**- Onartzea ondasun higiezin hiritarretako lurzorua eta eraikinen balio ponentzien aldaketa, udalerrri hauei dagokiena: Amezketeta, Anoeta, Antzuola, Astigarraga, Beizama, Deba, Eibar, Ibarra, Leaburu, Legorreta, Ordizia, Pasaia, Donostia, Zaldibia eta Zumarraga.

Bigarrena.- Ponentzia aldaketak jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, interesatuek hautazko berraztertze errekurtsua jarri ahal izan dezaten Foru Aldundian edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkez dezaten Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko 1989ko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal bakoitzaren ediktuen bidez iragartzea ponentziak jendaurrean jarri direla aurreko apartatuan aipatu bezala. »

Ponentzia horiek dagokien udaletan eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Udal Zergen Zerbitzuaren bulegoetan (Errotaburu pasealekua, 2, 3. Solairua. Donostia) jendaurrean jarri direla jakinarazteko, [2019ko irailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean](#) iragarkia argitaratu da. Hortaz, erabakiaren bigarren apartatuan aipatzen den 15 eguneko epea 2019ko irailaren 10etik 30era arte, biak barne, izango da. Epe horretan interesatuek ebazpen horren aurka hautazko berraztertze errekurtsua aurkeztu dezakete Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren aurrean, edo bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu dezakete Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, beti ere Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Halaxe hau denon aurrean argitaratzen da behar diren ondorioetarako.

EDICTO

En relación con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles y la revisión de los valores catastrales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana, el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 3 de septiembre de 2019, adoptó el siguiente Acuerdo:

«**Primero.**- Aprobar la modificación de las ponencias de los valores del suelo y de las construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana correspondientes a los municipios de Amezketeta, Anoeta, Antzuola, Astigarraga, Beizama, Deba, Eibar, Ibarra, Leaburu, Legorreta, Ordizia, Pasaia, San Sebastián, Zaldibia y Zumarraga.

Segundo.- Someter dichas modificaciones de ponencias a exposición pública, por un plazo de 15 días, durante el cual los interesados podrán interponer recurso de reposición potestativo ante la Diputación Foral o reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral, en los términos previstos en el artículo 11 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Tercero.- Ordenar la publicación de la apertura de la exposición pública referida en el apartado anterior, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y por edictos del ayuntamiento respectivo. »

En el [Boletín Oficial de Gipuzkoa de 9 de septiembre de 2019](#), se ha publicado el anuncio de la apertura de exposición pública, en los ayuntamientos afectados y en las oficinas del Servicio de Tributos Locales del Departamento de Hacienda y Finanzas (Paseo Errotaburu, 2, planta 3ª. San Sebastián). En consecuencia, el plazo de 15 días al que hace referencia el apartado segundo del acuerdo será el comprendido entre el 10 y el 30 de septiembre de 2019, ambos incluidos. Durante dicho plazo las personas interesadas podrán interponer recurso de reposición potestativo ante el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral, en los términos previstos en el artículo 11 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Lo que se pone en público conocimiento a los efectos oportunos.

Pasaia, 2019/09/09
Alkatea/La alcaldesa,